



**baliabideak**  
material didaktikoa



# Programazio estrategiak irratian eta telebistan

Edorta Arana

**Ikasle kaiera**

IKD baliabideak 5 (2013)

## AURKIBIDEA

1) Proiektuaren ikasketa-helburuak .....	3
2. Galdera nagusia .....	4
3. Proiektuaren enuntziatua .....	4
4. Zereginak: ariketak eta emangarriak .....	4
5) Ebaluaketa .....	7
6) Kronograma .....	9
7. Errekurtsoak .....	12

## 1) Proiektuaren ikasketa-helburuak

Irratiaren, telebistaren eta interneten programazioaren oinarriaz ikaslea jabetzea du helburu irakasgai honek. Lehen pausu modura,, gaur egungo eskaintzaren osakera (generoak, formatoak, edukiak...), antolaketa (teknikak, programazio-taula...), eta lortzen dituen audientzia emaitzak identifikatzeko gaitu nahi du ikaslea. Baina, horrezaz aparte, hedabide horietarako proposamen berriak diseinatzeko eta eraikitzeke ezagutza aplikatua eskaini nahi dio ikasleari.

Dagoena aztertzeke eta interpretatzeko "tresneria" lortzeaz gain, ekarpenak egiteke gaitasuna eskuratuko du ikasleak.

Gaitegia	Ikasketa-helburuak (H)
1. Radio, television and Internet audiences 2. Concepts and measurements used in audience research 3. The definition of programming 4. Internal and external factors in programming 5: The Programming department	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Audientzia ikerkuntzara dedikatzen diren erakunderik garrantzitsuenak zeintzuk diren eta burutzen dituzten azter-lanen aplikagarritasuna identifikatzea. (H1)</li> <li>- Audientzia ikerkuntzen emaitzak interpretatzea eta aplikatzea. (H2)</li> </ul>
6. The panorama of radio 7. The offer 8. Habits and consumption of Radio 9. Programming for radio 10. The Panorama of Television 11. The offer 12. Habits and consumption of Television 13. Programming for Television	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hedabide desberdinen izaera berezitua agerian uztea, bakoitzaren helburuak, eskaintza (programak/generoak, programazio teknikak eta programazio-taula) eta audientzia datuak alderatuz. (H3)</li> <li>- Kanal/Emisora baten programazio-helburu estrategikoak azaleratzeko gai izatea. (H4)</li> <li>- Egungo ikus-entzunezkoen panoraman, programazio-taula berezituak diseinatzeko oinarriak aplikatzen jakitea. (H5)</li> <li>- Jendea aurrean, ahoz, idatziz zein bestelako euskarriak erabiliz komunikazio eraginkorra eskaintzeko gaitasuna (H6)</li> </ul>
14. The internet: panorama, offer, consumption and programming.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irrati-telebistagintzaren programazioan internetek duen eragina azaltzen jakitea. (H7)</li> <li>- Webgune/Atari baterako eskaintzaren oinarriak jartzen jakitea. (H8)</li> </ul>

## 2. Galdera nagusia

Dagoena kritikaztea erraza da baina nolakoa litzateke irratarako ala telebistarako programazio-taula ideala?

## 3. Proiektuaren enuntziatua

Ikus-entzunezko Kontseiluak eskatu digu etorkizuneko irrati-telebistaren programazioari buruz hausnartzea eta horren inguruko txosten bat egitea, proposamen praktiko eta guzti. Agindutakoaren arabera, hasteko, gaur egungo eskaintza, programazioa eta kontsumoa ikertu beharko dira. Bigarren atal batean, proposamen zehatza eginez, programazio-taula ideala eraiki beharra dago.

## 4. Zereginak: ariketak eta emangarriak

Ikasgai honetan burutuko diren zereginak bi motakoak dira: batzuk ariketa gisa ulertu behar dira eta gehien banaka burutuko dira, aldiz, bigarren batean kokatzen diren emangarriak taldean egingo dira eta erabat txertatuta daude proiektu nagusia deitu dugun horretan. Bigarren multzo honetan daude, garrantzi bereziz, lau emangarri.

### 4.1. *Proiektu nagusitik at dauden zereginak: ariketak*

Honako hauek dira proiektu nagusia deitu dugunetik at, klasean edo/eta etxean ikasleak aurrera atera beharko dituen lanak edo ariketak:

1. **“Irrati/TBaren gaineko inpresioak”**. Bi zati ditu zeregin honek. Lehenean, ikasle bakoitzak bere kabuz telebista ala irrati bat aukeratu eta horren deskribapen pertsonala egingo du orrialde bateko “gutuna” idatziz. Ariketa honen bigarren zatian, inpresioetan oinarritutako idatzia benetako datuekin alderatu nahi da, klasean bertan eginiko praktika baten bidez.

2, **“Irrati programa berri baterako proposamena”**. Ariketa honek ere bi zati ditu. Lehenean, ikasle bakoitzak irrati bat aukeratu eta bere audientziaren fitxa egingo du, CIESen datuak erabiliz, gainera programa berri baterako proposamena egingo du audientzia datuetan oinarrituta.

Bigarren zatirako ikasle bakoitzak beste baten fitxa eta proposamena aztertu eta bideragarritasuna ebaluatuko ditu.

3. **“Programazioari buruzko aldizkariak”**. EHUko liburutegi zentrolean, programaziogintzarekin erlazionatutako aldizkarien data-basea egitea da ariketa honen helburua. Ikasleek, banaka, liburutegian dauden aldizkarietatik 3 aztertuko dituzte, bertan ageri den informazioarekin fitxa bana betez.

4. **“Irrati eta telebista atariak interneten”**. Sarean aurkitu daitezkeen web atarien data-basea egitea da ariketa honen helburua. Ikasleek, banaka, ordenagailu gelan arituz 3 atari aipagarrienei buruzko fitxa bana beteko dute.

5. **“Telebista kanal baten eskaintza generoka”**. Eginiko lehen ariketan, telebista ala irrati baten inguruko gutuna idatzi beharra zeukan ikasleak, bere inpresioetan oinarituta. Orain, telebista kanal beraren (ala ebaluatu zuenaren) eskaintza aztertuko du Kantar Mediak argitaratzen dituen datuak erabiliz. “Inpresioak” eta datu hotzen arteko alderaketa egin eta ondorio batzuk atera beharko ditu.

6. **“Irrati-telebistagintzaren etorkizuna interneten”**. Irtenetek irrati-telebistarako zabaltzen dituen leiho berrien adibideak bildu eta aztertu.

#### **4.2. Proiektu nagusiko zereginak**

Proiektu nagusi honen barruan gaur egungo irrati eta telebistaren programazioa aztertu eta hortik aurrera taldekideek ideala kontsideratzen dutenaren programazio-taula eraiki beharko dute. Zeregin hauetan, ikasleek hiru pertsonako taldeak antolatuko dituzte, lehenengo irratia eta gero telebista landuz. Gainera, proiektu guztiak klasean aurkeztuko direnez (“azokak” deitu ditugun aktibitateetan), bakoitzarena egiteaz gain, beste taldeetan landu dituzten proiektuak aztertu eta ebaluatu beharko dituzte ikasle guztiek.

Ikus dezagun zehatz mehatz proiektu nagusiaren barruan kokatu ditugun zereginak:

1. **“Irratia gaur”**. Talde bakoitzak irrati emandegi bat aukeratu eta haren programazio-taula, generoek emisioan daukaten pisua eta audientzia aztertuko ditu. Informazioarekin txosten bat egingo du.

2. **“Irrati ideala”**. Lehen zereginean aukeratutako irrati emandegi bera oinarri modura hartuta, talde bakoitzak programazio-taula ideala eraikiko du. Horretarako, partaide bakoitzaren funtzioa aldatuko da. Informazioarekin txosten bat egingo du talde bakoitzak.

3. **“Irrati azoka”**. Ikus-entzunezko azoka eta ferietan egiten den bezalaxe, talde bakoitzak bere irrati idealaren proiektua aurkeztuko du klasean, horretarako posterrak, powerpointak ala nahi dituen euskarriak erabiliz. Azoka hau burutzerakoan, proiektu desberdina epaitzeko bost epaimahai antolatuko dira eta horietariko bakoitzak bi proiektuen azalpenak entzun eta aurkeztutako egitasmoa ebaluatuko ditu.

4. “**Telebista gaur**”. Talde bakoitzak telebista kanal bat aukeratu eta haren programazio-taula, generoek emisioan daukaten pisua eta audientzia aztertuko ditu. Taldekide bakoitzak aurreko emangarrietarako eginiko funtzioaren desberdina egingo du. Informazioarekin txosten bat egingo dute.

5. “**Telebista ideala**”. Lehengo kanal bera abiapuntu gisa hartuta, talde bakoitzak programazio-taula ideala prestatuko du. Horretarako, berriro ere, partaide bakoitzaren funtzioa aldatuko da. Informazioarekin txosten bat egingo dute.

6. “**Telebista azoka**”. Talde bakoitzak eginiko programazio-taula idelaren proiektua aurkeztuko du klasean.

Aurrekoan bezala, azoka hau burutzerakoan, proiektu bakoitzerako hiru pertsonako bost epaimahai eratuko dira, ebaluaketa egiteko.

## 5) Ebaluaketa

Zereginak	Puntuak	Ebaluaketa erizpideak
<b>Proiektu nagusitik at dauden zereginak: ariketak</b>		
1. "Irrati/TBaren gaineko inpresioak".	0,5	-."Inpresio pertsonalak" eta kanal/emisoraren eskaintzaren arteko alderaketa egiteko argumentazio egokia eraikitzea. - Generoen elementu bereizgarriak identifikatzea eta sailkapen egokia egitea. - Beste ikaskide batzuk eginiko lanei buruzko iruzkinak idatzi eta moodlera jasotzea. (Zeregin hau lotuta dago 5. zenbakia daramanarekin)
2, "Irrati programa berri baterako proposamena".	0,5	- Audientzia ikerkuntzan erabiltzen diren emaitzak eta kontzeptuak ondo erabiltzea. - Argumentazio egoki bat eraikitzea eta taldean aurkezteko gaitasuna. - Besteen proposamenak idatzizko ebaluazioa ondo egitea.
3. "Programazioari buruzko aldizkariak".	0,5	- Informazioa egokiro laburtu, fitxa bete eta moodlera jasotzea.
4. "Irrati eta telebista atariak interneten".	0,5	- Informazioa egokiro laburtu, fitxa bete eta moodlera jasotzea..
5. "Telebista kanal baten eskaintza generoka".	1	-."Inpresio pertsonalak" eta kanal/emisoraren eskaintzaren arteko alderaketa egiteko argumentazio egokia eraikitzea - Beste ikaskide batzuk eginiko "gutunei" buruzko iruzkinak idatzi eta moodlera jasotzea. (Zeregin hau lotuta dago 1. zenbakia daramanarekin)
6. "Irrati-telebistagintzaren etorkizuna interneten".	1	- Iturri desberdinetatik jasotako informazioa antolatu eta hausnarketa sakona egitea.

		- Interneteko eskaintza kalitatez eraikitzeko proposamenak diseinatzea.
<b>Proiektu nagusiko zereginak</b>		
1. "Irratia gaur" (1. emangarria).	1	- Programazio-taularen azterketa, generoen pisua eta audientzia datuak zehaztasunez biltzea eta aztertzea - Ondorio orokorrak garbiro azaltzea ahoz zein kalitatezko txostenak idatziz
2. "Irrati ideala". (2. emangarria)	1	- Programazio-taula idealerako elementuak zerrendatzea eta horrekin proposamen artikulatu bat egitea - Proposamena jendearen aurrean garbiro azaltzea ahoz, idatziz zein ikus-entzunezko errekurtsioak erabiliz.
3. "Irrati azoka".	0.5	- Proposamena jendearen aurrean garbiro azaltzea ahoz, idatziz zein ikus-entzunezko errekurtsioak erabiliz. - Besteen lanak sakonean aztertzea eta ebaluaketa egokia egitea.
4. "Telebista gaur". (3. emangarria)	1	- Programazio-taularen azterketa, generoen pisua eta audientzia datuak zehaztasunez biltzea eta aztertzea - Ondorio orokorrak garbiro azaltzea ahoz zein kalitatezko txostenak idatziz
5. "Telebista ideala". (4. emangarria)	2	- Programazio-taula idealerako elementuak zerrendatzea eta horrekin proposamen artikulatu bat egitea - Proposamena jendearen aurrean garbiro azaltzea ahoz, idatziz zein ikus-entzunezko errekurtsioak erabiliz.
6. "Telebista azoka".	0,5	- Proposamena jendearen aurrean garbiro azaltzea ahoz, idatziz zein ikus-entzunezko errekurtsioak erabiliz. - Besteen lanak sakonean aztertzea eta ebaluaketa egokia egitea.



## 6) Kronograma

Asteak	Gaiak	Klaseko jardunaren desglosea	Proiektu nagusitik aparteko zereginak	Proiektu nagusiko zereginak	Emangariak
1	Audience 1	- Irakasgaiaren aurkezpena			
		- Klase espositiboa: Audientzia ikerkuntza 1 (azalpen teorikoa eta audimetriari buruzko bideoa)			
		- 1.Ariketa (1)	"Irrati/TBaren gaineko inpresioak" idatzi		
2	Audience 2	- 1.Ariketa (2)	"Irrati/TBaren gaineko inpresioak" aurkeztu/eztabaidatu	"Irratia gaur"	
		- Klase espositiboa: Audientzia ikerkuntza 2			
		- Proiektu nagusirako taldeak sortu			
		- 2, Ariketa (1)	"Irrati programa berri baterako proposamena" idatzi		
3	Audience 3	- 2. Ariketa (2)	"Irrati programa berri baterako proposamena" aurkeztu/eztabaidatu		Lehena
		- Klase espositiboa: Audientzia ikerkuntza 3			
		Proiektuko lana			

4	Programmi ng 1	- Klase espositiboa: Programazioaren oinarriak eta faktore eragileak 1		"Irrati ideala"	
		Proiektu lana			
5	Programmi ng 2	- Klase espositiboa: Programazio saila 2			Bigarren emangarri a
		- 3. Ariketa	"Programazio aldizkariak" egin		
		Proiektuko lana			
6	Radio1	- Klase espositiboa: Irratigintza 1		Irrati azoka	
		- Irrati azoka			
7	Radio 2	- Klase espositiboa: Irratigintza 2		"Telebista gaur"	
		- 4. Ariketa (1)	"Irrati eta telebista atariak interneten" idatzi		
		- Proiektuko lana			
8	Radio 3	- Klase espositiboa: Irratigintza 3			
		- 4. Ariketa (2)	"Irrati eta telebista atariak interneten" aurkeztu/eztabaidatu		
		- Proiektuko lana			
9	Radio 4	- Klase espositiboa: Irratigintza 4		Hirugarre n emangarr ia	
		- Proiektuko lana			

10	Television 1	- Klase espositiboa: Telebistagintza 1		"Telebista ideala"	
		5. Ariketa (1)	"Telebista kanal baten eskaintza generoka" idatzi		
		- Proiektuko lana			
11	Television 2	- Klase espositiboa: Telebistagintza 2			
		5. Ariketa (2)	"Telebista kanal baten eskaintza generoka" aurkeztu/eztabaidatu		
		- Proiektuko lana			
12	Television 3	- Klase espositiboa: Telebistagintza 3			Laugarren emangarria
		- Proiektuko lana			
13		Telebista azoka		Telebista azoka	
14	Television 4	- Klase espositiboa: Telebistagintza 4			
		- 6. Ariketa (1)	"Irrati telebistagintzaren etorkizina interneten" idatzi		
15	Internet	- 6. Ariketa (2)	"Irratitelebistagintzaren etorkizuna interneten" aurkeztu/eztabaidatu		
		- Klase espositiboa: Internet			

## 7. Errekurtsoak

Moodle plataformaren barruan gune bat irekita dago banakako zein taldekako ariketak eskuragarri egon daitezen (<http://moodle.ehu.es/moodle/course/view.php?id=805>). Besteak beste moodle gunean errekurtso hauek erabiltzen dira: data-baseak (aldizkariak eta intereseko webguneak...); glosategia; foroak; talde bakoitzaren aktibitatea zehazten duen egutegia, eta abarrak.

Gainera eskura daude klaseen edukiak powerpoint eta guzti.

Horrezaz gain, irakasgaiaren eduki teoriko osoa honako webguneetan aurkitu daiteke:

- [http://ocw.ehu.es/gizarte-eta-zuzenbide-zientziak/programazio-estragiak-irratian-eta-telebistan/Course\\_listing](http://ocw.ehu.es/gizarte-eta-zuzenbide-zientziak/programazio-estragiak-irratian-eta-telebistan/Course_listing)



Arana, E. (2013). Programazio estrategiak irratian eta telebistan – IKD baliabideak 5 - <http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/arana-5-2012-ik.pdf>



**Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa):** Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.